

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

## 2020

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

### 2:58

## Mikele López de la Hoz

Isiltasunak gaueko ordu txikiak betetzen zituen. Egun argiz leihotik leihora auzoko zurrumurru guztiak zeramatzaten hitzak, koloreetako ametsetan jira-biraka zeuden. Haizeak balkoietatik zintzilik zeuden maindireak laztantzen zituen, baita norbaitek ausarki irekita utzitako leiho batetik ateratzen ziren errezelak ere. Izarrek baino gehiago distiratzten zuten kaleko argien laguntzaz, zuhaitzen itzalek aurretik jendez gainezka egondako zoruak betetzen zituzten. Kaleak hutsik zeuden, bat izan ezik.

Iluntasunak menperatutako kalezulo batean, Liher zegoen zutik. Ez zegoen ez zuhaitzik ez izararik haizerekin dantzatzeko, baina hau Liherren hatzetako odolarekin jolasten zebilen. Odola hoztu eta eskuetatik irristatzen zitzaion, antzarak ziruditen azkazaletara arte, bertan, zalantza une bat igaro ondoren, tantaka-tantaka erortzen ziren, bere bernizezko zapata berriak kolpatu eta aurreko gauean euriak sortutako putzuetan murgilduz.

Bat-batean, doinu batek haizearen txistu zorrotza moztu zuen. Ordurarte, soilik erlojuaren tik-tak hotsak izan zuen hori egiteko kemena, eta Liherren buru zaratatsuak, nola ez, zerbait gaizki egin ondoren zure kontra jartzen diren burutazioz beteak. Liherrek ez zuen mugikorra hartu, odolez zikintzeko beldurrez edo, Adeiren erlojua lurraren kontra apurtu eta ihes joan zen, gauean izkutatzen diren begiradetatik urrunduz, erlojuak gertatutakoa ordu biak eta berrogeita hemezortzian ezartzen zuela. Adei hor geratu zen, lurrean, izarrei begira, zerutik gertu, gutako inor baino gertuago.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

Liher etxera iritsi zen, atearen kirrinkak bere etorrera iragarri zion une horretan patxaran bat prestatzen ari zen Ekiri. Izotzen soinuek Liherren pausoekin bat egiten zuten, eta Ekik, bira egin gabe, zera esan zion: "Zergatik ez didazu hartu?". Liherrek zerbait sentitu zuen lepo atzean, errua ote? Horrela, argiak piztu, pareta osoa betetzen zuen beirateko gortina gorriak ireki eta emanaldia hasi zen:

- Esan ba, nun zenbiltzan?
- Adeirekin zeozer hartzen.
- Eta non dago bera?
- Kalean geratu da, norbaitekin elkartzekoa zen.

Aurrez aurre zegoen eraikinean argi txiki bat piztu zen, soinuengatik kexu egitetik urrun, ikusle moduan egoteko esnatu zen auzokide baten logelakoa hain zuzen ere. Bikoteak, kaleko egoera erreparatu gabe, eztabaidan jarraitu zuen:

- Eta zer? Noiz bueltatuko da etxera?
- Ez dakit, ez dit esan.
- Badakizu gutxienez norekin geratu den?
- Ez.
- Ez al zarete konturatzen etxe hau hirurona dela? Ezin duzuela sudur puntan jartzen zaizuen a egin!

Azkar zabaldu zen albistea auzoan, mezuz-mezu, argiak piztuz, leihoak irekiz. Bitxia zen Izazti familia liskarretan ibiltzea, gurasoak bizirik zeudenean algarak eta muxuak entzuten ziren soilik, eta oihuren bat Errealak sartzen zuenean. Egun hartatik ordea, eztabaidak sarriagoak ziren, auzokide marmartiek eskertzekoa zutena.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

- Utziozu bakean, nagusiena da bera, jakingo ez du, ba, bere burua zaintzen?
- Beti dabil guri zer esan eta zer egin esaten, ez da bidezkoa.
  
- Eskubidea du, gurasoek bera utzi zuten gure arduradun.
  
- Zergatik defendatzen duzu?
  
- Ez naiz defendatzen ari, egia da! Denok irakurri genuen testamentua, etxe hau berea da eta ez zuk ez nik ezin dugu deus egin hori aldatzeko. Ikasketak bukatu arte, bere esku gaude.

Dagoeneko kale osoko argiak zeuden piztuak, antzoki bateko fokuak bezala, protagonistei arreta kendu gabe. Iritzi, iruzkin eta iragarpen guztiek mugikorrek berotzen zituzten, sareak gainezka zeuden, inoiz baino gehiago.

- Badakit Liher, nik gurasoen azken-nahia errespetatzen dut, eta ez zait gaizki iruditzen. Baina berak guraso papera hartu nahi badu, izan dadila arduratsua.
- Ez esan tontakeriarik, ez dago hori bilatzen.
  
- Esadazu ba orduan zergatik den guri aginduak emateko gai?
  
- Ez dakit Eki, goazen ohera, bihar hitz egingo dugu lasai berarekin.
- Noski hitz egingo dugula!

Horrela bukatu zen antzezlan, beiratea gorritz berriro margotu eta ohera abiatu ziren anai-arrebak. Izazti etxeko argiak izan ziren itzali ziren lehenengoak, auzokideek oraindik denbora behar izan zuten hurrengo egunean informazioa lortzeko planak burutu eta haien ondorioak ateratzeko. Horrela, mezu bakoitzak Liher ohera joandako ordu zehatza gordetzen zuen hodeian, 2:54, 2:55, 2:56,

2:57, 2:58, Liherren alibia ziurtatuz.

Gau hartan inoiz baino hobe egin zuen lo Ekik, Adeiren ohean sarturik, bizitza aske batekin ametsetan. Ekaitz baten aurretiko lasaitasunaz gozatzen.